

«Euskara gutxiago aipatu eta gehiago gozatu behar da»

Ostiral honetan, hilak 7, Anje Duhalde kantari lapurtarraren emanaldia izango dugu Intxaurrendoko Larrotxene kultur etxean, "Lagunekin kantari" ekimenaren harira. Duhaldek 30 urte inguru daramatza musika munduan. Bere ibilbideaz, zentsuraz eta euskararen egoeraz hitz egin dugu berarekin.

Orreaga Aranburu

Ostiralean "Lagunekin kantari" egitasmoan ariko zara. Zuk lehendik ere baduzu esperientzia antzeko ekimenetan, ezta?

Bai, batez ere Bilboko eta Ondarroako kafe antzokietan eta nire herrian, Arrangoitzen, antolatzen ditugu horrelakoak, eta bertan parte hartzeko ohitura dut.

"Lagunekin kantari"-k entzuleak kantuan jartzea du helburu. Zer egin daiteke, horrelakoetan, abesariaren eta entzuleen arteko harremana sustatzeko?

Jendeari esan behar zaio ez datorrela kantari bat entzutera, baizik eta beraiek izango direla protagonista. Ez da beti erraza izaten, baina konfiantza jarri eta giro berezia sortuz gero, lor daiteke. Jendea protagonista izatea da helburua. Kantatzeko joera galdu da, eta hori berreskuratzeke ahaleginean gabiltza. Jendeak abestu egin behar du, barre egin behar duen bezala.

Beraz, zenbait tokitan, Intxaurrendoko "Lagunekin kantari" bezalako esperientziak daude. Mota honetako ekimen

"Kantatzeko ohitura berreskuratzeke ahaleginean gabiltza"

gehiago egin beharko al litzateke kantu zaletasuna bultzatzeko?

Nire ustez, esperientzia hauek zabaldu egingo dira. Izan ere, jendeak kantatzeko gogoia duela dirudi, nahiz eta horretarako letren orritxoak esku artean eduki behar duen. Noski, onena kantak buruz ikastea litzateke. Baina horrelako ekimenak bidea dira, gure kantutegia eta herritarren arteko harremana berreskuratzeke bidea.

Nolakoa da Donostiako entzulegoa?

Entzulego bat baino gehiago dago Donostian. Beste hiriburuak bezala, mikroklima bat da Donostia. Era guztietako jendea dago, eta kantatzen den tokiaren arabera, jendea aldatu egiten da.

El Fuego izeneko taldean hasi zinen musikan. Bitxia da taldearen izena gaztelaniaz izatea...

Garai hartan gaztelaniazko izenak jartzea modan zegoen Ipar Euskal Herrian. Gainera, jendeak pasodobleak jotzea eskatzen zigun askotan...

Ondoren, Mixel Ducaurekin, Errobi sortu zenuen. Jende askok euskal rockaren aitzindaritzat du talde hura.

Gustatzen zitzaiguna egiten genuen. Gero, jendea aitzindari ginela esaten hasi



Isabelle Henri

zen, baina ez genuen ezeren sortzaile izateko asmorik. Adibidez, garai hartan, Egan taldeak ere Bob Dylanen edo Beatlesen bertsioak egiten zituen. Baina, agian dantzaldietarako taldea zelako, jendeak ez zituen behar bezala kontuan hartu.

Akelarren ere ibili zinen. Nolakoa izan zen garai hura?

Berezia. 80ko hamarkadaren hasiera zen, trantsizioaren amaiera, eta egoera berria zen. Lehen bi urteetan oso ondo pasatu nuen. Herri askotan ibili ginen. Gero beste talde batzuk sortu ziren, eta estilo berria ekarri zuten. 1984an edo 1985ean utzi nuen Akelarre. Garai hartan gauzak aldatu egin ziren, erromeriaren mundua aldatu zen.

Bakarka hasi zinenetik, zertan aldatu da zure jarduna?

Funtsean ez da aldatu. Hasieran Errobirekin edo Akelarrerekin identifikatzen ninduten. Baina behin hori gaindituta, gusturago ibili naiz. Hala ere, bakarka ibiltzeak alde onak eta txarrak ditu. Askatasun handiagoa daukazu, baina hanka sartzen duzunean ere zeuk ordaintzen duzu. Gainera, jendeak bakarlaritzat hartzen zaituen arren, talde baten lana dago atzean, eta askotan taldea ezkutuan geratu ohi da.

Errobiren bost diskoak CD bilduma kaxan kaleratu dira. Orain arte, talde bakan batzuek besterik ez dute horrelakorik egin Euskal Herrian. Nola sortu zen aukera?

Elkar diskoetxeak proposatu zigun, kultur ekintza gisa bilduma kaleratzea. Baina ez genuen guk bultzatu, diskoetxeak baizik.

Aurrera begira, zer proiektu duzu?

Kantu batzuk egiten ari gara, datorren urteari begira.

Kanten letrengatik, arazoak izan zenituen zentsurarekin. Gaur egun, oraindik ere, zenbait euskal taldek zentsura pairatzen dute.

Gu hasi ginenean zentsura ofiziala zegoen, kantak Kultura eta Turismo bulegora bidali behar genituen, eta han baimendu edo zentsuratu egiten zituzten. Kasu honetan ez da hain ofiziala; baina Fermin Muguruzari edo Berri Txarrak eta SA taldeei egindako zentsura erabaki politiko baten ondorio da. Demokraziaren aurkako eraso hau salatu eta politikoki konpondu behar da.

Euskarak ere azkenaldian etengabeko erasoak jasan ditu. Zure ustez, zer egin daiteke edo zer egin beharko litzateke arazo honi aurre egiteko?

Lehenik, euskaldunok euskaldun kontzientzia hartu eta euskara erabili, mantendu eta indartu behar dugu. Erraza da euskarari eraso diotela esatea. Batzuk gaztelaniaz kekatzen dira euskararen egoeraz... Euskara ez bada eguneroko bizitzarako

hizkuntza bihurtzen, egoera gero eta kezagarriagoa izango da.

Egin beharreko lehen gauza, euskara jakinez gero, ahalik eta toki gehienetan erabiltzea da. Kantak dioen bezala, "maita nazazu gutxiago, goza nazazu gehiago". Kasu honetan, "aipa nazazu gutxiago" esan genezake. Azken urteetan, euskara inoiz baino gehiago aipatzen da, baina inoiz baino gutxiago erabili.

Jendearentzat eta jendearekin

Hirugarren urtez, In-txaurren Zaharreko Bizilagunen Elkarteak (IZBE) eta Donostia Kulturak "Lagunekin kantari" antolatu dute. IRUTXU-Oren laguntzaz, Maiatzaren 7an, 14an, 20an eta 21ean kantua protagonista izango da Larrotxene kultur etxean. Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira. Hasieran, abeslariak jendaurrean kantatuko dute eta, ondoren, entzuleekin batera. Horretarako antolatzaileek abeslari letrak banatuko dituzte. Horrez gain, argazki erakusketa bat egongo da Larrotxeneen aurreko edizioak gogorarazteko. Sarrera doan izango da.



Thierry Biscary

Maiatzak 7: Anje Duhalde

Maiatzak 14: Thierry Biscary, Maialen Errotabehere eta Philippe Albor

Maiatzak 20: "Etxekoekin kantari": Itziar Zamora eta Jon Txurio

Maiatzak 21: Kantu jira (20:00etan Larrotxenetik aterata)

Kantu afora (22:00etan)